

# ikusbideak

Nº 7 - NOVIEMBRE 2017 AZAROA



**Caritas**  
Bizkaia

**Etxegabekoezin bidean lagun.**  
Acompañando a las personas sin hogar.  
*Joseba Gaya Mandaluniz*

1. Argitalpena: 2017 azaroa.  
Argitaratzailea: Caritas Bizkaia Argitalpenak.  
Erribera, 8 - behe. 48005 Bilbao.  
Diseinu eta maketazioa: Positivo.  
Euskaraz sortua. Itzulpena: Artez.

Azaleko argazkia:  
Etxegabekoen mendi taldea

1ª edición: noviembre 2017.  
Edita: Cáritas Bizkaia Publicaciones.  
Erribera, 8 - bajo - 48005 Bilbao.  
Diseño y maquetación: Positivo.  
Original en euskera. Traducción: Artez.

Foto de Portada:  
Grupo de monte del área de las personas sin hogar.

## Gaberako aterbea

Kontatu didate Nueva York-en  
Broadway eta 26 karrikaren kantoian,  
Negu gorrian, gizon batek gabero  
jendeari otoi eskatzen  
aterbea bilatzen duela  
bilutsirik daudenentzat.

Mundua ez da era hortan aldatzen  
Gizonen hartu-emanak ez dira hobekitzen  
zama-aroa ez da hola laburtzen  
Baina gizon batzuek gau batez, ohea dute,  
aterbean haize otzik ez eta  
bereri zijoakien elurra, karrikan ari da.  
Liburuaren irakaspenik ez ahaztu gizona!

Gizon batzuek gau batez ohea dute,  
aterbean haize otzik ez eta  
bereri zijoakien elurra, karrikan ari da.

Bainan mundua ez da era hortan aldatzen  
Gizonen hartu-emanak ez dira hobekitzen  
zama-aroa ez da hola laburtzen.

(Hitzak: Bertolt Brecht - Musika: Mikel Laboa)

“Bidean laguntzea, funtsean, pertsona baten alboan ibiltzeko ekintza da, bere bizitza ibiltariaren zatiren bat elkarbanatzea.

Ez dugu zaindari izan behar bidean zehar gertatzen diren hanka-sartzeak ekiditeko. Ezta balizko arriskuen aurkako babesleak ere. Bidean laguntzen duena ez da hanka-sartzeetarako errezetak eta erremedioak agintzen dituena.

Hala eta guztiz ere, beti izango da bere bidearen zati bat. Gertutasun egokia jarrita, pertsona ito barik eta abandonua (uztea, utzikeria,...) sentiarazi barik.”

(Alonso eta Funes, 2009, 30. or)

“Acompañar es fundamentalmente la acción de caminar al lado de una persona, compartiendo alguna parte de su vida itinerante. No se trata de ninguna manera de ejercer de vigilantes para impedir las equivocaciones del camino. Tampoco se trata de ejercer de protectores para evitar la aparición de riesgos en el recorrido.

Quien acompaña no es una especie de profesional prescriptor de recetas y remedios para las equivocaciones. Siempre será, sin embargo, una parte de su camino y adoptando la proximidad adecuada, sin ahogar y sin hacer sentir abandono.”

(Alonso y Funes, 2009, p. 30)



<b>1.</b>	<b>SARRERA.</b> INTRODUCCIÓN.	6
<b>2.</b>	<b>HISTORIA APUNTE BATZUK.</b> UNOS APUNTES DE LA HISTORIA.	7
<b>3.</b>	<b>BIDE-LAGUNTZA.</b> ACOMPAÑAMIENTO.	12
	<b>GAKOA BIDEAN LAGUN IZATEA DA.</b> EL ACOMPAÑAMIENTO ES LA CLAVE.	14
<b>4.</b>	<b>GIZARTERATZERAKO LAGUNTZA</b> <b>ZERBITZUA, GILTZA.</b> GILTZA, SERVICIO DE ACOMPAÑAMIENTO PARA LA INCORPORACIÓN SOCIAL.	18
<b>5.</b>	<b>PARTE HARTZEA ETA GURE ESKU-HARTZEA .</b> PARTICIPACIÓN E INTERVENCIÓN.	25
	<b>ETXERIK GABEKOEN ARLOAN ETA GILTZAN</b> <b>GARATUTAKO PARTE-HARTZE PROZESUAK.</b> PROCESOS DE PARTICIPACIÓN DESARROLLADOS EN EL ÁREA DE PERSONAS SIN HOGAR Y EN GILTZA.	26
<b>6.</b>	<b>SENTSIBILIZAZIOA ETA SALAKETA.</b> SENSIBILIZACIÓN Y DENUNCIA.	30
<b>7.</b>	<b>ARGI-ILUNAK.</b> CLAROSCUROS.	33

# 1.

## SARRERA INTRODUCCIÓN

GILTZA (Gizarteratzeko Laguntza Zerbitzua), martxan jarri zenetik hamar urte baino gehiago joan dira jadanik. GILTZAren apustuak etxerik gabeko pertsonekin lan egiteko, artatzeko, modu berri bat ekarri zigun: bide-laguntza. Pertsonak artatze prozesuaren erdigunean jartzea zen horren muina, hau da, beraien eskubideen alde lan egitea. Gizarteratze prozesuetan honek ekarri duen onura ikusita, gure esperientzia zabaldu nahi izan dugu. Nahiz eta gu bide-laguntzaren asmatzaileak ez izan, zerbitzu sarean oraindik ere bide luzea dago egiteke honelako arreta mota ondo zabaldua eta errotuta egon dadin.

Hortaz, **Ikusbidea** honetan gure apustuaren nondik norakoak azalduko dizkizuegu. Gure arloaren historia, bide-laguntza zer den eta nola gauzatu dugun GILTZA zerbitzuan aurkituko duzue. Hortik aurrerakoak, zerbitzuaren garapenean ikasitakoak, bide-laguntzaren gakoak, esperientziaren argi-ilunak eta hemendik aurrerako erronkak ere zuengana zabaldu nahi ditugu.

Ya han pasado más de diez años desde que el servicio GILTZA (Servicio de Acompañamiento para la Incorporación Social), se puso en marcha. La apuesta de GILTZA nos ofreció una nueva forma de atender y trabajar con las personas sin hogar: el acompañamiento. La esencia del planteamiento fue convertir a las personas en el centro del proceso de intervención, es decir, trabajar por sus derechos. En vista de los beneficios que esta forma de actuar ha tenido en los procesos de incorporación social, hemos querido difundir nuestra experiencia. Antes que nosotros otras entidades se habían planteado trabajar desde el acompañamiento; aun así todavía hay mucho trabajo por hacer en la red de servicios para que este tipo de atención se incorpore y consolide.

En este sentido, en el presente **Ikusbidea** procuraremos explicar los pormenores de nuestra apuesta metodológica. Encontraréis una breve reseña histórica del área de personas sin hogar, sabréis qué es el acompañamiento y cómo lo hemos desarrollado dentro del servicio GILTZA. Nos gustaría haceros llegar lo aprendido en el desarrollo del servicio, las claves del acompañamiento, los claroscuros de nuestra experiencia y los retos a los que pretendemos enfrentarnos.

# 2.

## HISTORIA APUNTE BATZUK UNOS APUNTES DE LA HISTORIA

Urte asko dira etxerik gabeko pertsonenkin dihardugula Bizkaiko Caritasen. Urte hauetan guztietan hainbat zerbitzuekin eta hainbat esku-hartze modurekin etxegabekoei laguntza ematen saiatu gara. Unean uneko beharrei erantzuna emateko aldaketak egin ditugu etxegabekoen egoera ezberdinak artatzeko eran, baita zerbitzuen diseinuan ere, jakinda, gure erantzunak beti pertsonen beharren atzetik joan direla, doazela eta joango direla. Tarte hori gero eta txikiagoa izan dadin jo eta ke dihardugu eta jardungo dugu.

XX. mendeko 50eko hamarkadan baze- goen Caritaseko egoitzan langabeak eta bidariak artatzeko gizarte zerbitzu bat. 1983koa da aurkitu dugun lehenengo dokumentazioa eta Bizkaiko Baztertzearen Mahaiaren akta bat da. Aldi horretan krisi ekonomikoa, langabeziaren igoera eta aldaketa sozio-politiko handiak bizi ziren. Horrek guztiak aldaketak ekarri zituen etxerik gabeko pertsonen bizi zitzuten egoeretan, baita beraiekin lan egiteko moduan ere. Ondorioz, erantzun berriak garatzen hasi ginen.

XXI. mendean hasieran, esku-hartzearen ardatza aldatzeko beharra sumatzen hasi ginen.

Artatzen genituen pertsonen eskaerei ahal genuen bezala erantzuten genien, baina, eta beraiek argi uzten ziguten bezala, ez zen nahikoa. Zer edo zer aldatu beharra zegoen. Caritas Bizkaiaiko zuzendaritzak apustu irmoa egin zuen bide-laguntzaren

En Cáritas Bizkaia llevamos muchos años trabajando con las personas sin hogar. En todo ese tiempo hemos tratado de ayudar a esas personas, a través de diferentes servicios y métodos de intervención. Hemos adaptado nuestros tipos de atención para dar respuesta a las diferentes necesidades de las personas sin hogar; y también hemos ido cambiando el diseño de los servicios, basándonos siempre en el principio de que nuestras respuestas deben adaptarse a las necesidades de cada persona. Trabajamos sin cesar para que esas respuestas estén lo más cerca posible de sus necesidades.

En la década de los 50 del siglo XX, existía en Cáritas un servicio que atendía a las personas sin empleo y a transeuntes. La primera documentación encontrada es de 1983. Es un acta de la Mesa de recursos a la marginación de Bizkaia. Aquella época se caracterizó por una importante crisis económica, una alta tasa de paro y la inestabilidad de la situación socio-política. Todo ello influyó en las situaciones que vivían las personas sin hogar, así como en la forma de trabajar con ellas. En consecuencia, teníamos que empezar a tratar de dar otro tipo de respuestas.

A principios del siglo XXI empezamos a darnos cuenta de la necesidad de cambiar el eje de nuestra intervención.

Respondíamos como podíamos a las demandas de las personas a las que atendíamos, pero no era suficiente como así nos lo transmitían ellos/as mismos/as. Algo había

alde, planteamendu berria jarri zuen mahai gainean, hurrengo urteetarako arloaren iparra markatuko zuena.

Planteamendu **hau, planteamendu berria, arloaren helburuarekin bat zetorren: etxegabekoentzat arreta integrala eta antolatua eskaini, egoera bakoitzari erantzun egokia eman eta gizarteratzeko bide guztiak baliatuz.**

Horrela izanik, ikuspuntua aldatu genuen: gure baliabideetan bakarrik oinarritutako ibilbide batetik, gizarteko baliabideak ere erabiltzen zituen bide-laguntza prozesu integrala eskaintzera pasatu ginen eta ETHOS etxegabekoen kategorizazioa aintzat hartu genuen:

#### ATERPERIK GABE

- Espazio publiko batean bizitzea (etxerik gabe).
- Gaua aterpe batean ematea eta gainerako orduak espazio publiko batean eman behar izatea.

#### ETXERIK GABE

- Egonaldia zerbitzu-zentroetan edo aterpeetan (etxegabekoentzako ostatuak, hainbat eratako egonaldiak ahalbidetzen dituztenak).
- Emakumezkoentzako aterpeetan bizitzea.
- Etorkinei eta asilo-eskatzailerei eskaintako aldi baterako ostatueta bizitzea.
- Erakundeetan bizitzea: presondegiak, arreta sanitarioko zentroak, ospitaleak, etab., nora joan ez dutela.
- Laguntza-ostatueta bizitzea (alokairu kontraturik gabe).

#### SEGURTASUNIK EZ DUEN ETXEBIZITZA

- Lege titulurik gabeko etxebizitza ba-

que cambiar. La dirección de Cáritas Bizkaia apostó firmemente por el acompañamiento y presentó un nuevo planteamiento que marcaría el rumbo del área en los años siguientes.

Ese planteamiento nuevo, **coincidía con los objetivos del área: ofrecer una atención integral y organizada para las personas sin hogar, proporcionando una respuesta adecuada a cada situación y utilizando todos los recursos y posibilidades para la incorporación social.** Siendo así, nuestro punto de vista sufrió un cambio: de un proceso basado simplemente en nuestros propios recursos, pasamos a ofrecer un proceso de acompañamiento que también tenía en cuenta los recursos comunitarios y empezamos a basarnos conceptualmente en la categorización ETHOS relativa a las personas sin hogar:

#### SIN TECHO

- Vivir en un espacio público (sin casa).
- Pernoctar bajo techo y tener que pasar el resto de horas en un espacio público.

#### SIN HOGAR





tean bititza (hartara behartuta, sendeekin edo lagunekin aldi batez bititza, alokairurik gabeko etxebitza batean bititza -okupatutako etxeak alde batera utzita-, etab.)

- Etxebitza uzteko lege jakinarazpena jasotzea.
- Familiaren edo bikotekidearen erasoan mehatxupean bititza.

#### ETXEBITZA DESEGOKIA

- Aldi baterako txabola batean bititza.
- Estatuko legeek desegokitzen jotako etxebitza batean bititza.
- Masifikatutako etxebitza batean bititza.

ETHOSeko kategoriak hartuta, egoera horietan diren etxebekoko pertsonak artatu genituen. Honetarako, Caritasek hainbat zerbitzu baliatu zituen urteetan zehar, helburu ezberdinekin, bakoitza bere historiarekin eta garapenarekin. Hainbat intuizio bagenituen **bide-laguntza** zer zen azaltzeko, pertsonekin lan egiteko modu hori... Eta urteetan eguneroko lanean ikusten genuen horrek izena hartu zuen: bide-laguntza. Etxegabekoek beraiek eskatzen ziguten eta ez ginen ematera ausartzen, ez genuen ulertzen, ez genuen aditzen, aditzeak aldaketa beharra dakar eta.

Arloak martxan zituen zerbitzuek ere bazuten hamaika zailtasun etxebekoen eskariei erantzun aproposa emateko. Alde batetik, etxebekoen arretarako zegoen sareak zulo gehiegi zituen, bakoitzak ahal zuena egiten zuen. Administrazio publikoen eskumenak definitzen ari ziren eta horrek ere aldaketak ekarriko zizkion arreta sareari; bai kudeaketa aldetik, baita koordinazio aldetik ere. Ez zegoen

- Estancias en centros de servicios o albergues (centros para personas sin hogar, que ofrecen diferentes alternativas de estancia).
- Albergues para mujeres.
- Vivir en centros provisionales para inmigrantes y personas que solicitan asilo.
- Vivir en instituciones: cárceles, centros de asistencia sanitaria, hospitales, etc., no teniendo otro sitio a dónde ir.
- Vivir en centros de ayuda (sin contrato de alquiler).

#### VIVIENDA INSEGURA

- Habitar una vivienda sin título legal (por obligación, viviendo temporalmente con familiares o amigos, en una vivienda sin alquiler -dejando aparte las casas ocupadas-, etc.).
- Recibir notificación para abandonar la casa.
- Vivir bajo coacción de la familia o la pareja.

#### VIVIENDA INADECUADA

- Vivir en una chabola temporal.
- Vivir en una vivienda que se considera inadecuada según las leyes estatales.
- Vivir en una vivienda masificada.

Teniendo en cuenta las categorías de ETHOS, atendimos a las personas que se encontraban en las situaciones mencionadas. Para ello, Cáritas ha utilizado varios servicios a lo largo de los años, con diferentes objetivos, cada uno con su historia y su desarrollo. Nos dejamos guiar por nuestra intuición para saber y explicar en qué consistía el **acompañamiento**, esa manera de trabajar con las personas, y con el paso de los años le pusimos nombre a eso que

etxegabekoen arretarako plan argirik, ezta ildo argirik ere. Gure zerbitzuek ere lanean jarduten zuten beraien arteko lan ildo komunik gabe. Koordinazio eskasa zegoen, arazoak konpontzeko zailtasunak eta zerbitzu bakoitza isolatuta zegoen, beste zerbitzuekiko konfiantzarik gabe.

Une horretan, eta tamalez oraindik ere sareko hainbat zerbitzutan, pertsonak zerbitzura moldatu beharra zeukan: erantzun bakarra eta berbera pertsona guztientzat. Pertsona guztiak berdinak bagina bezala. Bakoitzaren historia, gaitasunak, ezintasunak, momentua eta nahiak kontuan hartu barik. Horrek guztiak gizarteratze prozesu ugari zapuztu zituen eta oraindik ere zapuzten ditu. Pertsona asko aukera barik geratzen zen zerbitzu horretarako pentsatuta zegoen profila betetzen ez zuelako. Beste asko zerbitzutik zerbitzura ibiltzen ziren, pairatzen ari ziren egoerarentzako erantzunaren bila. Batzuek ez zuten ulertzen zergatik ez zegoen laguntzarik beraietzat eta beste batzuek porrot bilduma gero eta handiagoa gehitzen zioten bizi zuten

hacíamos día a día: acompañamiento. Eran las propias personas sin hogar las que nos lo pedían, y no nos atrevíamos a dárselo; no lo entendíamos, no lo acabábamos de ver, porque el escuchar trae consigo una necesidad de cambio.

Los servicios que tenía en marcha el área también presentaban numerosas dificultades para responder a las demandas de las personas sin hogar. Por un lado, la red existente para la atención a las personas sin hogar tenía demasiadas carencias; cada uno hacía lo que podía. Las competencias de las administraciones públicas estaban en proceso de definir, con lo que también ello traería cambios a la red de atención; tanto en gestión como en coordinación. No había ningún plan específico para las personas sin hogar, tampoco líneas de trabajo claras y precisas. Nuestros servicios trabajaban sin una línea de trabajo común. La coordinación era escasa, se observaban dificultades para la resolución de problemas y cada servicio estaba aislado, sin nexos de confianza entre los unos y los otros.

En aquel momento, por desgracia, todavía en numerosos servicios eran las personas las que debían adecuarse al servicio, puesto que se ofrecía una única respuesta a todas las personas. Como si todas las personas fuéramos iguales. Sin tener en cuenta las historias, capacidades, limitaciones, momentos y deseos de cada individuo. Todo ello truncó y sigue truncando numerosos procesos de incorporación social. Mucha gente quedaba sin posibles soluciones por el mero hecho de no ceñirse al perfil pensado para tal servicio. Muchas otras personas pasaban de servicio en servicio, en busca de respuestas que se adecuaran a sus situaciones. Algunas de esas personas no comprendían por qué no exis-





egoera latzari; horrek zailtasun handia-  
goa zekarren aurrera egiteko, motibazioa  
izateko eta itxaropen zantzuak aurkitzeko.  
Sufritutako egoerak gordinak eta gogo-  
rrak nahikoa ez balira, guk, sareko zer-  
bitzuetako ezintasunagatik, egoera ho-  
riek gaiztotu egin ditugu. Horrek bere  
prozesuen aukerak zailtzea dakar. Gutako  
bakoitzak bere gizarteratze prozesua izan  
du eta horrek bizitzari aurre egiteko era  
guztiz markatu digu; hortaz, aldez aurretik  
egoerak berdinak iruditu arren, artatzen  
ditugunek ere erantzun ezberdinak behar  
dituzte, bakoitzaren arabera erantzunak.  
Zerbitzuek artatzen diren pertsonen be-  
harretara eta erritmoetara moldatzeko  
gaitasuna izan behar dute.

tían ayudas para las situaciones que esta-  
ban viviendo, y otras acumulaban cada vez  
más fracasos en unas condiciones de vida  
que ya eran suficientemente difíciles. Todo  
ello les acarrea aún mayores dificulta-  
des para seguir adelante, para mantener  
la motivación y poder encontrar restos de  
esperanza en el camino. Muchas personas  
han vivido situaciones muy difíciles, y no-  
sotros/as, en ocasiones, no hemos hecho  
más que empeorar esas situaciones por las  
limitaciones de nuestro servicio, compli-  
cando aún más sus procesos. Cada uno/a  
de nosotros/as ha tenido su propio proceso  
de socialización, lo que ha marcado com-  
pletamente nuestra forma de hacer frente  
a la vida; por ello, a pesar de que a priori  
las situaciones puedan parecer similares,  
las personas que atendemos necesitan  
respuestas diferentes, personalizadas. Los  
servicios deben ser capaces de adecuarse  
a las necesidades y ritmos de las personas  
que reciben nuestra atención.

# 3.

## BIDE-LAGUNTZA ACOMPAÑAMIENTO



Bide-laguntzak aurreko joera asistentzialistak gainditzea planteatzen du. Joera horietan, adituen bitartekaritza zen ildoa markatzen zuena, pertsonen beharrak interpretatuta eta beraien erabakiak hartzeko aukera alboratuta. Gizarteratze programa bide-laguntza klabearekin definitzeak, artatzen dugun pertsona bakoitzari arreta eta ardua pertsonalizatua eskaintzea dakar. Bidean laguntzea, norbaiten alboan aurrera egitea da, elkarren arteko proiektua konpartitzea. Pertsona eta bere historia beste begirada batekin begiratzea da, berak ere bere burua beste era batera begiratu ahal izateko.

Ezin dugu pentsatu pertsona guztiak era eta maila berean gizarteratuko direnik. Bakoitzaren ibilbidea eta helburuak pertsonalizatzeko aukerak baliatu behar ditugu, bakoitzaren ezaugarriak errespetatuz eta maila apaleko gizarteratzeak ere onartuz.

**Gizarteratzea ezin da pertsona guzti-entzat eta egoera guztietan berdina**

El acompañamiento plantea la superación de las tendencias asistencialistas anteriores. En dichas tendencias, era la intermediación de los y las expertos/as la que marcaba la línea de actuación, interpretando las necesidades de las personas y relegando la oportunidad de tomar sus propias decisiones. El hecho de definir el programa de incorporación social desde la clave del acompañamiento, significa ofrecer atención y responsabilidad personalizada a cada persona que atendemos. El acompañamiento es avanzar al lado de la persona, compartir un proyecto común. Significa mirar a la persona y su historia con otros ojos, para que ella misma pueda verse y mirarse de otra forma.

No podemos pensar que todas las personas vayan a incorporarse de la misma forma y en la misma medida. Debemos aprovechar las oportunidades de personalizar las trayectorias y objetivos de cada persona, respetando las características de cada una de

**izan. Mota askotakoa izan daiteke eta lagundutako pertsonarentzat eta barmneratzen den gizartearentzat ez du gehiegizko ahalegina suposatu behar. Gizarteratze egokia ingurua eta pertsona zaintzen dituen da.**

Gizarteratze prozesuak azpimarratzen ditugunean, pertsonaren bizi-ibilbidea nabarmendu nahi dugu. Gizarteratzea egoera jakin batetik hasten den prozesua da. Pertsonaren gaitasunak garatu nahi ditu eta bizi den inguruneari aurre egiteko behar duen lanabesik onenak eskura jarri nahi dizkio. Autonomia pertsonala errazten du, hiritar eredu jakin bat aurrez ezarri gabe. Horregatik ez dugu jarri behar etiketarik, hala egitean etorkizuneko aukerak ukatzen dizkiegu-eta.

Bazterketa egoera jakin batetik hasita, prozesuak aurrerapenean datza (gaitasunetan, laguntzetan, ezagutzan, harremanetan, independentzian...). Sendatze ereduaren gaixo-osasuntsu dualtasunari kontrajarri, guk bilakaeraz, igarotzeaz, bihurtzeaz hitz egingo dugu.

Bidean laguntzea, hortaz, gizarteko instituzio burokratizatuen eta baztertutako pertsonen artean bitartekari izatea da, beraien eskubideak bermatzeko eta baliarazteko.

ellas y aceptando también los procesos de incorporación más modestos.

**Los procesos de incorporación no pueden ser iguales para todas las personas y situaciones. La incorporación puede darse en diversas formas y no debe suponer un esfuerzo extra para las personas acompañadas ni para la sociedad a la que se incorporan. Un proceso de incorporación adecuado es aquel que cuida al entorno y a la persona.**

Cuando destacamos los procesos de incorporación, pretendemos hacer hincapié en el recorrido vital de la persona. La incorporación es un proceso que comienza en un punto o situación concreta. Pretende desarrollar las capacidades de la persona y proporcionarle las herramientas necesarias y más adecuadas para hacer frente al mundo que le rodea. Facilita la autonomía personal, sin preestablecer un modelo concreto de ciudadanía. Por eso, no debemos poner etiquetas, puesto que de ese modo no hacemos más que limitar posibles oportunidades de futuro.

El proceso consiste en el progreso de la persona, partiendo desde una situación de exclusión concreta (desarrollo de capacidades, ayudas, conocimientos, relaciones, independencia...). En contraposición a la dualidad enfermo/a-sano/a del modelo de curación, nosotros/as hablaremos sobre la evolución, la transición, la transformación.

El acompañamiento, por tanto, consiste en actuar como mediador entre las instituciones burocratizadas de la sociedad y las personas excluidas, a fin de garantizar sus derechos y hacer que puedan ejercerlos libremente.

## **GAKOA BIDEAN LAGUN IZATEA DA**

Hauskortasun egoeran dauden pertsonen prozesuak garatuko dituzte norbaitek bide horren zatiren batean laguntzen badie. Zutaz bereziki arduratzen den pertsona bat edukitzea funtsezkoa da gizarteratzeko, behintzat lehenengo uneetan, prozesuaren hasieran.

Gizarteratze prozesuen ikuspuntutik eta logikatik lan egiteak ahaleginak indartzera eramango gaitu, harrera unea bezalako (eta bestelako) funtsezko uneetan, hasierako aditze horretan, pertsona jasotzen dugun lehen une horretan.

Pertsonarengandik datorrena ulertzea beharrezkoa da, guk uste baino nahi handiagoa dakarrelako aldaketak egiteko.

Gizarteratzea lantzeak honako hiru hauek uztartzen ditu:

- Negoziatu
- Planifikatu
- Bide-lagun izan

Ekintza horiek beste bat daukate aurretik; harrera. Horrek sedukzio jarrera behar du, pertsonak berarengan daukagun interesa nabaritu dezan eta eskaintzen diogun laguntzak bere zailtasunak lantzeko aukera ematen diola ikus dezan.

Lehenengo urratsa harremana eraikitzea da, borondatezko atxikimendua bermatzea. Pertsonekin lan egiterakoan bakoitzaren ezaugarriez jabetu behar gara eta horiek landu. Elementu horietan oinarriturik bakoitzak bere ibilbidea egiten duelako.

Hurrengo elementuak kontuan hartu behar ditugu:

- Bizitzaren, lanaren, ezagutzen, gaitasunen azterketa. Nondik norakoak, alde

## **EL ACOMPAÑAMIENTO ES LA CLAVE**

Las personas que se encuentran en situación de vulnerabilidad desarrollarán sus procesos en tanto reciban ayuda para ello, al menos en algún tramo del camino. Para hacer efectiva la incorporación es imprescindible contar con una persona que se preocupe por tí, por lo menos en un primer momento, es decir, en el comienzo del proceso.

Trabajar desde el punto de vista de la incorporación social y la lógica nos llevará a fortalecer nuestros esfuerzos en el momento de la acogida, así como en el resto de momentos fundamentales del proceso; en el primer momento de escucha, en el recibimiento de la persona.

Es necesario comprender lo que nos llega de la persona, puesto que la voluntad de cambio es mayor de la que creemos.

Trabajar la incorporación comprende estos aspectos:

- Negociación
- Planificación
- Acompañamiento

Las acciones mencionadas siempre llevan una pauta previa: la acogida. Para ello, es necesario mantener una actitud de seducción, para que la persona note el interés que tenemos hacia ella y se dé cuenta de que con nuestra ayuda podrá salvar sus dificultades.

El primer paso es construir la relación, garantizar el apego voluntario. En el trabajo con personas debemos detectar las características de cada una de ellas y trabajar en base a esas características, puesto que cada persona realiza su trayectoria en función de esos elementos.

- onak, txarrak, emaitzak...
- Interesak eta motibazioa.
- Distortsioak (arazoak, ingurune zailak...).
- Aurrerapenen erritmoa.
- Bizitzako ikaskuntza eta bizitza estiloa.
- Zenbat eta zer nolako errefortzu eta suspergarriak behar dituen pertsonak.
- Etab.

Bere bizitzaren ibilbidea eta kultura aztertzen ditugunean, jakin nahi dugu (beraiek onartu dezaten) zein gakok azaltzen eta baldintzatzen duen bere orainaldia eta bere etorkizunaren diseinua. Guk ez diogu inoiz azalduko zer gertatzen zaion, jabetzeko prozesuan lagunduko dugu. Horrexegatik, adostutako diagnosiak hitz egingo dugu, lagundutako pertsonaren ulertzeko modu subjektiboa erantsiz.

Gizarteratze prozesuan laguntza ona emateko, bide-laguntza egiteko, pertsonak erreferentzia bat hautatu behar du. Berataz arduratuko den pertsona, ardura pertsonal eta profesionalarekin.

Bide-laguntza prozesuan egoera hauek aurkitu ditzakegu:

- Lehenengo harreratik hasita, pertsona bat zure erreferentzia-pertsonatzat onartzeraino igarotzea.
- Aldizkako hartu-emana, enpatia-agerpena eta bizi suspergarrien azalratzea.
- Bien arteko lehenengo akordioak gauzatzea.
- Norberaren interesen hedapena, motibazioa une ezberdinetara igarotzea.
- Norberaren ahalmenez eta defizitez jabetzea.
- Lehenengo aurrerapausoen jakinarazpena.

Debemos tener muy en cuenta los siguientes puntos:

- Análisis de la vida, trabajo, conocimientos, competencias... Circunstancias, pros, contras, resultados...
- Intereses y motivación.
- Distorsiones (problemas, dificultades del entorno...).
- Ritmo del progreso.
- Aprendizaje y estilo de vida.
- Cantidad y tipo de refuerzos y alicientes que necesita la persona.
- Etc.

Cuando analizamos la trayectoria y cultura de vida de la persona, queremos saber (para que ellos/as lo acepten) cuáles son las claves que explican y condicionan su presente y el diseño de su futuro. No le explicaremos qué es lo que le pasa, sino que lo trabajaremos en el proceso de interiorización. Por ello, hablaremos sobre el diagnóstico compartido, añadiéndole el modo subjetivo de entender de la persona acompañada.

Para proporcionar una adecuada ayuda en el proceso de incorporación, para procurar un correcto acompañamiento, la persona necesita elegir una referencia; una persona que se vaya a encargar de ella, que se vaya a preocupar de ella tanto de forma personal como profesional.



- Aurrerabegirako helburuen proposa-  
mena.
- Helburuen eta konpromisoen ordenaren  
planifikazioa.
- Bizipen positiboen analisia eta ondo-  
rio probetxugarriak ateratzea aurrera  
segitzeko.
- Lortu ez diren helburuen eta bizipen  
negatiboen ondorioz gertatzen den  
frustrazioaren kudeaketa.
- Talka, lana eta aurrerapausoak honda-  
tzea, kanpotik etorritako gertakari  
itxuraldatzaileen ondorioz, askotan bere  
hurbileko inguruneak sortuak direnak.
- Nahasmendu osoko egoeretara eta  
uneetara itzultzea.
- Gizarteratze prozesua berrabiaraztea,  
beste puntu batean eta baldintza  
ezberdinetan.

Gizarteratze prozesu bat aldaketa proiektu bat da. Aldaketa lortzeko urrats batzuk eman behar ditugu, bide bat egin, lortu beharreko helburuak eta bere inguruan izango dituen laguntzen, baliabideen eta mekanismoen antolaketa.

Prozesua gertakarien joan etorria izango da beti. Ez da ibilbide lineala izango, ez norabide bakarrekoa, ezta etengabekoa ere. Prozesuak ez du beti norabide berbera jarraituko, ezta etengabeko bidea egingo ere. Ustekabeko bizipenak aurrera eta atzera, hemendik hara, eramango du pertsona. Gelditu eta berriz aurrera egingo du bere prozesuan. Prozesua beti pertsonaren egoerara egokitua izango da.

Uste dugu (hori da gure lanaren hipotesia), pertsonari emango dizkiogun laguntza ekintzek gizarteratze prozesua baldintzatu, ahalbidetu eta suspertu egingo dutela.

Bide-laguntzaren hartzailea bere gizarteratzerako laguntza beharra adierazten duen edonor izan daiteke, eta

En los procesos de acompañamiento podemos encontrarnos con las siguientes situaciones:

- Pasar desde la acogida inicial a consi-  
derar a un profesional persona de refe-  
rencia.
- Contacto periódico, aparición de la em-  
patía y surgimiento de estímulos vitales.
- Primeros acuerdos comunes.
- Ampliación del abanico de intereses,  
paso a fases y momentos diversos de  
motivación..
- Descubrimiento de las propias capacida-  
des y déficits.
- Constatación de los primeros avances.
- Propuesta de metas sucesivas
- Planificación de secuencias de objeti-  
vos y compromisos (pactos sucesivos  
en torno al proceso personal)
- Análisis de vivencias positivas y extrac-  
ción de consecuencias provechosas  
para optimizar el progreso.
- Gestión de las frustraciones ante las  
metas no conseguidas y como resulta-  
do de las experiencias negativas.
- Impacto, retroceso en el trabajo y avan-  
ces realizados, como consecuencia de  
acontecimientos externos distorsiona-  
dores, a menudo generados en su en-  
torno inmediato.
- Retorno a situaciones y momentos de  
completa agitación.
- Reiniciación del proceso de incorpora-  
ción, desde otro punto de partida y en  
diferentes condiciones.

Un proceso de incorporación social es un proyecto de cambio. Para materializar el cambio, es necesario cumplir ciertos pasos, tomar un camino preciso, fijar unos objetivos y organizar las ayudas, recursos y mecanismos con los que contará en su entorno.



profesionalarekin denbora tarteak igarotzeko interesa adierazten duena prozesua abian jartzeko eta bere eskariei eta beharrei heltzeko.

Baina esfortzu horiek ezerezean geratuko dira, baliabideak eta zerbitzuak kudeatu eta planifikatu behar dituztenek ez badituzte hurrengo gako hauek abiapuntutzat hartzen:

- Egitura malguak.
- Bide-laguntza ardatz duten erakundeak.
- Formakuntza eta talde lana errazten dutenak.
- Aldaketarako gogoia izan eta prozesuetara egokitzen direnak.

El proceso siempre será un ir y venir de acontecimientos. No será un camino lineal; tampoco unidireccional, ni constante. El proceso no siempre seguirá una misma dirección, ni realizará una trayectoria continua. Los acontecimientos inesperados llevarán a la persona de aquí para allá, de atrás a delante. Se detendrá, y retomará otra vez el proceso, el cual siempre deberá adecuarse a la situación individual que cada persona tiene en cada momento.

Creemos (y en ello consiste la hipótesis de nuestro trabajo) que las acciones de ayuda que proporcionemos a cada persona condicionarán, posibilitarán y reforzarán su proceso de incorporación.

Cualquier persona que manifieste la necesidad de recibir ayuda para su incorporación puede ser receptora del acompañamiento, siempre y cuando muestre interés en pasar tiempo con los/las profesionales a fin de poner en marcha el proceso y atender a sus solicitudes y necesidades.

Pero dichos esfuerzos se quedarán en nada si las personas que deben gestionar y planificar los recursos y servicios no toman en consideración los siguientes puntos de partida:

- Estructuras flexibles.
- Entidades que tengan como eje el acompañamiento.
- Facilitadores/as de formación y trabajo en equipo.
- Con ganas de cambio y que se adecúan a los procesos.

# 4.

## **GIZARTERATZERAKO LAGUNTZA ZERBITZUA, GILTZA**

### **GILTZA, SERVICIO DE ACOMPAÑAMIENTO PARA LA INCORPORACIÓN SOCIAL**

GILTZA Bilboko Elizbarrutiko Caritasen Etxegabeko pertsonen arloko zerbitzua da. Helburua hauxe da: bazterkeria edo ahuldade egoeran dauden 60 etxegabeko pertsoneri (gizarteratze prozesuko une ezberdinetan) bide-laguntza pertsonalizatua eskaintzea.

GILTZA, etxerik gabeko pertsonentzako gizarteratze eta bide-laguntza zerbitzu gisa hasi zen 2005eko urtarrilaren 1ean. Zerbitzu hori martxan jartzeak Caritasen etxegabekoekin lan egiteko bide-laguntzaren aldeko apustu instituzional indartsua ekarri zuen.

GILTZA martxan jarri aurretik, arloaren historia eta beste zerbitzuen bizipenak eta ibilbideak aldaketa honen zantzuak jarri zituzten. Horien artean "Aterpebakoen harrera" zeritzona, Bilbora zetorren etxegabekoari lehenengo harrera egiten zion zerbitzua (oinarrizko beharren artapena) zen. Erantzun horiez gain, bide-laguntza xumeak egiten genituen ostatu ordaintzen genien pertsonekin edota martxan jarri genituen pisuetara bidaltzen genituen pertsonekin. Ahal genuena egiten genuen geneuzkan baliabideekin eta ondo antolatutako bide-laguntza baten beharra gero eta nabariagoa zen.

Sarearen eta erakundeen arteko unea aprobetxatuz, Bilboko Udalak bere gain hartu zuen oinarritzko beharrei arreta emateko "leiho bakarreko" zerbitzua. Momentua baliatu genuen gure zerbitzua birmoldatzeko eta artatutako pertsonen

GILTZA es un servicio del área de personas sin hogar de Cáritas Diocesana de Bilbao. Su objetivo es ofrecer acompañamiento personalizado a 60 personas que se encuentran en situación de exclusión o vulnerabilidad (en diferentes momentos de sus procesos de inclusión social).

GILTZA comenzó su trayectoria el día 1 de enero de 2005, como servicio de incorporación y acompañamiento para personas sin hogar. La puesta en marcha del servicio significó una fuerte apuesta institucional en favor del acompañamiento de Cáritas para trabajar con personas sin hogar.

Previamente a GILTZA, la historia del área y las experiencias de otros servicios afinaron la base para el cambio y la consiguiente implantación del servicio actual. Entre otros, cabe mencionar el denominado «Acogida a personas sin techo», servicio que se encargaba de ofrecer la primera acogida a personas sin hogar que llegaban a Bilbao (atención de necesidades básicas). Además de esas respuestas, realizábamos pequeños acompañamientos a personas a las que pagábamos sus alojamientos o las que enviábamos a los pisos que pusimos en marcha por aquel entonces. Hacíamos lo que podíamos con los recursos con los que contábamos, pero era cada vez más evidente la necesidad de un servicio de acompañamiento organizado.

Aprovechando el momento de relación entre la red y las diferentes entidades, el Ayuntamiento de Bilbao se hizo cargo del

adierazten zuten beharrei erantzuna eman nahi zien zerbitzu bat sortzeko: bide-laguntza beharra bere prozesuetarako, egoera txarreko pentsioei ostatu alternatibak, ibilbide itxiko egoitza zerbitzuei alternatibak, eta pertsonen erritmo eta ibilbide ez linealak errespetatuko zituen zerbitzua.

GILTZAren lanaren muina bide-laguntza pertsonalizatua da. Bide-laguntza honek lagundutako pertsonaren prozesua eta erritmoak errespetatzen ditu. Oinarrizko beharrak (ostatua, jatekoa, jantzia) bermatuta egonda, pertsona bakoitzak bere gizarteratze ibilbide propioa garatuko du. GILTZA taldeak pertsonak bere prozesuan aurrera egiteko beharko dituen alor ezberdinetan bidean lagunduko du (osasuna, lana, justizia, etxebizitza, formakuntza, ekonomia, aisialdia, senideekikoharremana, giza harremanak, oinarritzko trebetasunak...). Horrek arreta osoa ematea errazten du, pertsonak hiritar gisa dituen eskubide eta betebeharrak baliatuz gizarateak gure eskura jartzen dituen zerbitzu eta baliabideak erabiltzeko aukera izan dezan.

servicio de «ventanilla única» para atender las necesidades básicas de las personas. Aprovechamos la ocasión para remodelar nuestro servicio y crear un servicio que diera respuesta a las necesidades que presentaban las personas atendidas: necesidad de acompañamiento en sus procesos, alojamientos alternativos a las pensiones en malas condiciones, alternativas a los servicios de alojamiento de itinerario cerrado, y un servicio que, en definitiva, respetara los ritmos y trayectos no lineales de cada persona.

La esencia del trabajo de GILTZA reside en el acompañamiento personalizado. Este acompañamiento respeta el proceso y ritmos de la persona acompañada. Garantizadas las necesidades básicas (alojamiento, alimento, ropa), cada persona desarrollará su propio trayecto de incorporación en la sociedad. El equipo GILTZA acompañará a la persona en su camino por los diversos ámbitos necesarios para completar su proceso (salud, trabajo, justicia, vivienda, formación, economía, ocio, relaciones familiares, relaciones sociales, habilidades básicas...). Todo ello facilita la prestación



GILTZAren lanaren ardatzak hauexek dira:

**-Bide-laguntza pertsonalizatua,** gizarteratzerantz. Pertsona ezberdinak behar ezberdinekin, gaitasun ezberdinekin eta gizarteratze helburu ezberdinekin. Pertsonak bere prozesuan aurrera egiteko beharko dituzten erritmoak eta epeak errespetatuz. Prozesuaren tutoretza une bakoitzean bide-lagun onena izango den taldekideari ematen zaio. Tutoretzan egin beharreko bidea elkarrekin adostuko dute, eman beharreko urratsak zehaztuko dituzte eta egindako bidea ebaluatu.

-Bide-laguntzak euskarri bezala eskaintzen dugun ostatu aukerak erabiltzen ditu, erabiltzaile gehienek hori eskatzen baitigute gizarteratze prozesua egoera duinetan aurrera eramateko. Horretarako, 27 gelako pensio soziala eta bost autonomia pisu ditugu, 18 gelarekin.



de una atención íntegra, valiéndose de los derechos y obligaciones que la persona tiene como ciudadana, a fin de que tenga la oportunidad de hacer uso de los servicios y recursos que la sociedad pone a su alcance.

Estos son los ejes principales del trabajo de GILTA:

**-Acompañamiento personalizado,** hacia la incorporación. Personas diferentes con diferentes necesidades, diferentes capacidades y diferentes objetivos de incorporación; respetando los diferentes ritmos y tiempos que cada persona necesita en su proceso de incorporación. La tutoría del proceso se le asigna en cada momento al miembro del equipo que vaya a ser el/la mejor acompañante. Acordarán de forma conjunta el camino a realizar en la tutoría, detallarán los pasos a dar y evaluarán la trayectoria realizada.

-El acompañamiento se apoya en las posibilidades de alojamiento que ofrecemos, puesto que la mayoría de los y las usuarios/as lo solicitan para poder llevar a cabo sus procesos de incorporación con dignidad. Para ello, contamos con una pensión social de 27 habitaciones y cinco pisos de autonomía, con 18 habitaciones.

- Otra de las claves del trabajo de GILTA es la coordinación, el trabajo en red. Para poder llevar a cabo un acompañamiento real, es imprescindible una coordinación directa y cercana entre todos los servicios susceptibles de ser usados por la persona acompañada. El protagonismo del proceso recae sobre la persona. Todas las personas han sido derivadas de algún otro servicio, el cual debe garantizar que la persona en cuestión tiene motivación suficiente para realizar su proceso de incorporación de forma acompañada; transmite la

- GILTZAren laneko beste ardatz bat koordinazioa da, sare lana. Benetako bide-laguntza aurrera eramateko, ezinbestekoa da koordinazio zuzena eta estua, lagundutako pertsona erabiltzen ari den zerbitzu guztien artean. Prozesuaren protagonista pertsona bera da. Pertsona guztiak beste zerbitzuren batetik bidaltakoak dira eta zerbitzu bidaltzaile horrek bermatu egiten du pertsonak gizarteratze prozesua lagunduta egiteko motibazioa duela, artapen proposamena egiten du eta prozesuarekiko konpromisoa aurkezten du. Elkarte bidaltzaileak pertsonarekin lan egiten jarraitzen badu eta berarentzat erreferentzia baliagarria bada, GILTZAK prozesuarekin bat egingo du, egiten duten lana osatuz. Baliozkoa dena ez da ordezkatzen. Horregatik, GILTZA n parte hartzen duten pertsonen prozesuetan behintzat hiru eragile aritzen dira beti.
- Ikuspuntu hori kontuan hartuta, koordinazioetarako erabiltzen ditugun komunikazioez gain, beste elkarteei bisita egiten saiatzen gara beraiekin egiteko eraz, metodologiaz eta zailtasunez hitz egiteko eta kontrastatzeko. Horrela, sare lana indartzen dugu.

**Lan-taldea:** 5 pertsona, gizarte langileak eta gizarte hezitzaileak. Talde-arduradun bat dago. Guztiok partekatzen dugu pertsona jakin batzuen bide-laguntzaren ardura. Gure eginbeharrak honakoak dira: pertsona jakin batzuen tutoretza; balorazio elkarrizketak; zerbitzu ezberdinekin koordinazio batzarrak burutzea; talde batzarrak kasu berrien balorazioak egiteko eta artatutako pertsonen prozesuen garapenaren jarraipena egiteko; aisialdiko ekintzak prestatu eta egitea, sentsibilizazio ekintzak,...

